

4/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025EKO MARTXOAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025eko martxoaren 25ean, arratsaldeko 19:04etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzatuko kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- ONDORENGO BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA: 2025EKO OTSAILAREN 25EKOA ETA MARTXOAREN 12KOA.

2025eko otsailaren 25eko eta martxoaren 12ko osoko bilkuretako aktak onestea proposatuta, Alkateak ohartarazi du akats bat dagoela 2025eko otsailaren 25eko osoko bilkuraren euskarazko aktan, azken aurreko lerrokada gazteleraz baitago. Bertaratutako guztiak ados agertu dira Alkateak planteatutako zuzenketarekin, eta aho batez onetsi dituzte bi bilkurei dagozkien aktak.

2.- ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONDORIO EKONOMIKOAK ZABALTZEKO ETA HASIERAKO INDARRALDIARI AMAIERA EMATEKO ERANSKINA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, 2025eko martxoaren 19an, Gizarte langilean etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena luzatzeko proposamen-txostena egin zuela.

Idazkari Kontu-hartzaileak 2025eko martxoaren 19an egindako luzapenaren kontrako txostena azaldu du.

Aurrekoak entzunda, eta espedientean jasotako dokumentazioa kontuan hartuta, Udaltzarak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzeko eta hasierako indarraldiari amaiera emateko eranskina.

BIGARRENA. Alkateari ahalordea ematea eranskina sinatzeko, baita hortik eratorritako gainerako izapideetarako ere.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiari ebazpen hau jakinaraztea.

LAUGARRENA. Argitaratzea sinatutako eranskina, hitzarmenarekin batera, egoitza elektronikoan (www.anoeta.eus), 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak, 5.4 eta 8.1.b) artikuluetan xedatutakoari jarraituz, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren onarpenaren iragarkia.

3.- ANOETAKO A-14 “LASARBE” SEKTOREKO LU3 EREMUKO AISIALDI GUNEAREN EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta A-14 “Lasarbe” sektoreko LU3 eremuko aisialdi gunearen exekuzio proiektuaren aurrekariak azaldu ditu, besteak beste:

- A-14 “Lasarbe” Eremuko Plan Partziala 2011ko uztailaren 4ko Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko, eta 2011ko uztailaren 29an argitaratu zen GAOn. Ondoren, 2021eko urtarrilaren 19ko Foru Aginduaren bidez izapidetu eta behin betiko onartu zen Plan Partzialaren 1. aldaketa, eta 2021eko uztailaren 29an GAOn argitaratu zen.

- A-14 Lasarbe sektorearen urbanizazio proiektua 2012an idatzi zen eta jarduketak 2 fasetan gauzatzea xedatu zen; lehen fasea 2015. urtean egin zen, eta 2. fasea egiteke geratu zen.

- Azken urteetan Lasarbe errekararen ondoan herritarrek egindako eskaerak ikusita, Plan Partzialaren 2. aldaketa idazteari ekin zitzaion. 2024ko martxoaren 21ean Udalbatzak egindako ezhoiko osoko bilkuran hasierako onespina jaso zuen eta 2024ko apirilaren 9an argitaratu zen GAOn, eta 2025eko urtarrilaren 30eko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Foru Agindu bidez onartu zen behin betikoz Plan Partzialaren 2. aldaketa.

- A-14 zatian egin beharreko aldaketak eta Plan Partzialaren 2.aldaketaren beharra ikusita, Udalak Hirigrama Kooperatiba Elkarte Txikia enpresa kontratatu zuen “A-14 Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketa idazteko, zeina hasiera batean onetsi zuen Udaltzabatzak, 2025eko otsailaren 25ean egindako ohiko Osoko Bilkuran eta 2025eko martxoaren 19an argitaratu zen GAOn.

- Lasarbe «A-14» sektorearen Plan Partziala eta Urbanizazio-proiektua aldatu ondoren, udalak obra batzuk egin nahi ditu Plan Partzialean LU.3 (Espazio libre urbanoak: lorategiak) gisa definitutako eremuan, Lasarbe errekararen ondoan dagoen aisialdi-eremu berri bat egokitzeko. Horretarako, Udalak Izarraitzpe Lorezaintza SLL izeneko enpresa kontratatu zuen egikaritze proiektuaren idazketarako.

- Izarraitzpe Lorezaintza S.L.L. enpresak 2025eko martxoaren 19an, 490. sarrera-erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zuen Anoetako Lasarbe eremuko arnasgune proiektua.

- 2025eko martxoaren 19an, udal arkitekto teknikoak A-14 “Lasarbe” sektoreko LU3 eremuko aisialdi gunearen exekuzio proiektuaren onespenerako txosten teknikoa egin zuen, ondorengo proposamenarekin:

“...

Prozedurarekin jarraitu ahal izateko, eta ondorioz, honako lanen exekuzioaren lizitazioa martxan jarri ahal izateko, proposatzen da Udalbatzak onartzea *Anoetako Lasarbe eremuko arnasgune proiektua*, 2024ko uztailekoa.

...”.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertutik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

BAKARRA. Onartzea Anoetako A-14 “Lasarbe” sektoreko LU3 eremuko aisialdi gunearen exekuzio proiektua, Izarraitzpe, S.L.L. enpresak aurkeztutakoa 2025eko martxoaren 19an 490. sarrera-erregistro zenbakiarekin.

ALKATETZA

4.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2025eko otsailaren 15etik martxoaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

Ondoren, Idazkari Kontu-hartzaileak jakinarazi du 2025eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran Alkatetzaren 2025eko otsailaren 6ko Dekretuari buruzko informazioa eman zela, akats baten ondorioz gai-zerrendako puntuari buruzko dokumentazioan sartu ez zelako. Hori dela eta, hurrengo ohiko osoko bilkuran kontua ematea eta bis gisa zenbakitzea proposatu zuen, eta bertaratutako guztiak ados agertu ziren horrekin. Hala ere, berriro ere, Alkatetzaren Dekretu hori ez da sartu gainerako Dekretuekin batera, eta, beraz, Idazkari Kontu-hartzaileak barkamena eskatu du eta Alkatetzaren Dekretu horren kopia bana bertaratutako guztiei banatzeko aukera proposatu du. Bertaratutako guztiak ados egon dira Idazkari Kontu-hartzailearen proposamenarekin, eta Alkatetzaren 2025eko otsailaren 6ko Dekretuaren kopia bana jaso dute.

ANTOLAKUNTZA

5.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

073. DEKRETUA		
2025.02.26		
Hartzekodunak		IFZ / IFK
PERITAJES Y TASACIONES, S.L. (PERYTAS)		B18700112
Prozedura		
Kontratu txikia		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
F25-0059	2025.01.27	2.395,80 €
Laburpena		
Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2025eko otsailaren 24an egindako eragozpenezko txostena, zeinak, besteak beste, ondorengo adierazten duen:		
“2025KTX10005 kontratazio-espedientea 2025eko otsailaren 18an ebatzi zen Alkatetzaren dekretu bidez. Aitzitik,		

PERITAJES Y TASACIONES, S.L. (PERYTAS) enpresak bidalitako faktura (F25-0059) 2025eko urtarrilaren 27koa da. Horrek adierazten du kontratuaren xede den zerbitzua hura gaitzen eta aitortzen duen ebazpena baino lehen kontratatu eta gauzatu zela”.

“Kontratu txikia Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikuluan arautzen da. Horren arabera, kontratu txikiko espedienteak gastuaren “A” fasearen onarpena eskatzen du, alegia, gastuaren onarpena, prestazioa gauzatu eta faktura eman aurretik, eta hori izango litzateke prestazioa bere garaian kontratu txikia izapidetuz enkargatu zenaren arabera gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentua. Hori dela eta, faktura kontratu txikiko dokumentuen aurretik egiten bada, eta, zehazki, gastua onartzeko dokumentuaren aurretik (esleipen-dekretua), hitzezko kontratu baten aurrean egongo gara, 9/2017 Legearen 37. artikulua berariaz debekatzen duena.

Objektua exekutatzen den unean kontratua izapideturik ez egoteak, printzipioz, erabateko deuseztasuna dakar, SPKLren 39.1 artikulua Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulura egiten duen igorpena dela eta.

Esandako guztiaren ondorioz, goian adierazitako gastua ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

Hortaz, kontuan izanda 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, bigarren paragrafoan eta hirugarren paragrafoaren c. letran–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte”.

078. DEKRETUA

2025.02.26.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2025eko otsaileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko otsailaren 26an eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jaso, non, besteak beste, ondorengo adierazten den:

“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garcarenak urteetan zehar kontratatze “programa” baten barruan ezkutututako lege kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garcarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko ondorengo espedientearen berri eman du:

- ❖ OMI 2/2025 espedientea, Alkateak 079. Dekretuz (2025eko otsailaren 26koa) altxatutakoa, Alkatetzatik izapidetutako Begoña Alvarez Galan ordezkapen lan



kontratuaren bidez kontratatzeko espedientean eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gainekoa.

GASTUAREN XEHETASUNAK

Hartzekoduna	IFZ / IFK	Zenbatekoa
Begoña Alvarez Galan	44134428G	1.990,21 €

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

GALDE-ERREGUAK

6.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak, lehenik eta behin, 2025 urterako aurrekontuei buruz galdetu du, horien onarpena noizko espero den jakiteko. Alkateak erantzun du aurrekontuen espedientea aurre-fiskalizazio izapidean daudela, Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostenak egiteari zain. Hala ere, beren onarpena arintzearen, EAJ-PNV talde politikoari aurrekontu-proposamena aurreratzeko konpromisoa hartu du.

Bigarrenik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren gainean galdetu du eta Alkateak erantzun du dagoeneko prest dagoela, baina horren onarpena 2025eko aurrekontuen aurretiko onarpenera baldintzatuta dagoela. Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren zirriborroa EAJ-PNV talde politikoari aurreratzeko konpromisoa ere hartu du.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:13tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino